

Sitopia eta belaunaldien arteko erreleboa

Euskal nekazaritza eta abeltzaintzako sektorearen kontakizunak

Laburpena: Carolyn Steel-en Sitopia kontzeptuak leiar bat eskaintzen du, eta horren bidez, janariaren eta lekuaren arteko harremana ikus —eta eralda— daiteke. Hala ere, eraldaketak elikagaien subiranotasuna sendotzeko norabide batean egin daitezten, nekazarien eta elikagaien ekoizleen hurrengo belaunaldiaren zereginak eta ongizateak leiar horren erdian egon behar du. Artikulu honek euskal nekazaritza-sektorean belaunaldien arteko ordezkapena baldintzatzen duten zenbait tentsio eta aukera aztertzen ditu.

Hitz-gakoak: Belaunaldien Erreleboa, Elikadura-Burujabetza, Europako Nekazaritza Politika Bateratua (NPB)

Abstract: Carolyn Steel's concept of Sitopia offers a lens through which to look at—and transform—the relationship between food and place. However, in order for transformation to take place in a direction that strengthens food sovereignty, the role and wellbeing of the next generation of farmers and food producers must be at the center of this lens. This article explores some of the key tensions and opportunities that condition generational turnover in the Basque farm sector.

Key words: Generational replacement, Food Sovereignty, European Common Agricultural Policy (CAP)



Zoe W. Brent

Transnational Institute (TNI) delakoaren Nekazaritzako eta Ingurumeneko Justizia Taldeko ikertzailea, eta doktoregaia Gizarte Ikasketen Nazioarteko Institutuan.

Jasotze data: 2018-11-14

Onartze data: 2018-12-17



«The world is already shaped by food, so we may as well start using food to shape the world more positively».

Hau da Carolyn Steelen ekintzarako deia. Testuingurua emateko, pentsamendu utopikoaren ildo historikoa trazatzen du berak, beste kontzeptu berri bati bide egiteko: Sitopia. Haren ustez, praktikoagoa da eta ez hain idealista. Greziako hitzen jatorrira itzuliz, utopia beharrean, zeinak 'ez lekua/leku eza' (grezieraz, *outopos*) edo 'leku ona' (grezieraz, *eu-topos*) esan nahi duen (Steel, 2008: 4903-4904), Sitopia *sitos* (janaria) eta *topos* (lekua) hitzetatik dator. Utopiak perfekzioa eta iraultza egin behar ditu erdietsia izateko; aldez, Sitopia

[I]s not an ideal place, but rather a transitional tool that works towards an ideal. It is an evolutionary, not a revolutionary movement: always in the process of becoming, never complete. In sitopia, small gains are significant, because they help create conditions in which life lived according to food-based values can flourish (Steel, 2012: 44).

Desberdintasunak izan arren, bi kontzeptuetan, Sitopia eta Utopia, «The basic building blocks of [these] theoretical societies» hauek dira: «Land and farming, city and country, work and leisure» (Steel, 2008: 4925-4926). Hirigintzatik, hiru «basic building blocks» horiek, elikaduraren eta hirien arteko harreman berriak nola diseinatu pentsatzeko esparru bat irudikatzen dute. Baina, azkenean, edozein diseinu hutsik geratzen da jendearen ekimena eta irudimena islatzen ez baditu, bereziki, elikagaiak ekoizten dituen jendearena.

Bere liburuan, pentsalari utopikoak kritikatzeko, diseinuarekin obsesionatuta, hiri utopikoak elikatzen dituen

lurra landu behar duenari arreta handirik eskaintzen ez diotelako. Hala ere, Steelek elikaduraren eta hirien arteko beste harreman bat deskribatzen du, eta onartzen du pertsonak direla zelaietatik, ustiatgetatik, jantokietatik, udaletatik eta beste hainbat tokitatik Sitopiari ikuspegia eta orientazioa ematen diotenak. Elikadura-burujabetzaren alde agertzen da¹, honakoen balioa berreskuratu dezakeen ikuspegia dela kontsideratuz: elikaduraren balioa, elikagai ekoizpenean parte hartzen dutenentzako justizia, hiriguneen eta landa-eremuen arteko konexioa eta janariaren bidez partekatu eta elkarriz ematearen plazera.

Artikulu labur honek ideia horiek euskal testuinguruan lurreratu nahi ditu². Argudio nagusia zera da, «building blocks of society» (land and farming, city and country, work and leisure) elikadura-burujabetzara bideratuko direla

1 Elikadura-subiranotasuna La Vía Campesina nazioarteko mugimenduak sortutako terminoa da. Nyeleniko adierazpenaren arabera, "Elikadura-burujabetza herriek elikagai nutritiboak eta kulturaliki egokiak izateko duten eskubidea da; edonorentzat eskuragarriak, eredu iraunkorrean eta ekologikoki ekoiztuz diren elikagaiak, herriak berak elikapen zein ekoizpen-eredua erabakitzeko eskubidea bermatzen duena. Elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten pertsonak elikadura-sistemen eta politiken erdigunean kokatzen ditu, merkatuen eta enpresen eskakizunen gainetik, alegia. Etorrizuneko belaunaldien interesak defenditzen ditu, eta haiek hartzen dituzten kontuan. Merkatu libre eta korporatiboa eta egungo elikadura-erregimenaren aurrean eusteko eta haiek hankaz gora jartzeko estrategia eskaintzen digu, eta elikadura-sistemak, nekazaritza, artzaintza eta arrantza-sistemak bideratzeko ere bai, tokiko ekoizleek eurek kudea ditzaten".

2 Bizkaian eta Araban nekazaritzan, abeltzaintzan eta mahastizaintzan lanean ari diren pertsonekin egindako elkarrizketa erdi-egituratuetan oinarritzen da bereziki. Tokiko agintariekin eta lehen sektorean belaunaldien arteko txandaren inguruan lanean ari diren beste eragile batzuekin izandako erdi-egituratutako elkarrizketetatik ateratako ikuspuntuak osatzen da. Guztira 35 egun dira 2017an eta 2018an.

ziurtatzeko modu bakarra elikagaiak sortzen dituztenez premiak lehenestea eta ulertzea dela. Etorkizunari begira, funtsezkoa da lehen sektorean belaunaldien arteko txandakatzean arreta jartzea³.

City and country

«Connecting producers to consumers is where all food-based power lies» (Steel, 2012: 41).

Hiriaren eta landa-eremuaren arteko lotura handiagoa sustatzeko, ekoizleak kontsumitzaileari zuzenean saltzea errazten duten zirkuitu motzetan arreta handia jartzen da: kontsumo taldeak, barazki ekologikoen saskiak, tokiko merkatuak eta abar. Hala eta guztiz ere, euskal testuinguruan, espainiar estatuan bezala, erronka are sakonago bat dago: hiri-eremuetara migrazioa dela-eta landa-eremuen hustuketa da, lehen sektoreari biztanleria kentzen diona eta errotoik kaltetzen duena.

Jendeak hirietara emigratu duela-eta herri txikien hustuketarekiko kezka handia agertu da. Fenomeno hori dela eta, estatu espainiarreko herrien erdiak desagertzeko arriskuan daude (Conde, 2018). Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleriaren % 12 bakarrik bizi da landa-eremuetan, Europar Batasuneko herrialdeen batez besteko % 26arekin alderatuta (Gaindegia, 2016:13). Herri mailan horrek ondorio garrantzitsuak ekartzen dizkio lehen sektoreari. Landa-eremuan bizi diren familien kopurua jaitsita, tradizioz nekazaritzara eta abeltzaintzara dedikatzen ziren familietako belaunaldien arteko erreleboa ere jaisten doa. Gainera, landa-eremuetan bizi diren familietatik, seme-alabak eta batez ere alabak sektoretik kanpo aukerak bilatzera joaten dira. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren «Igualdad de Género en el Medio Rural» (2011) diagnostikoaren arabera, landa-eremuak emakumezkoak galtzen ari dira.

Normalean horren arrazoitzat jotzen da haientzat lan-aukera urri izatea eta beste aldagai batzuen eragina, hala nola: oraindik esleitzen zaizkien estereotipoak, besteak zaintzeko beharra, lanaldi luzeak, gizarte-presioa, kasu gehienetan partekatzen ez diren etxeko ardurak eta emakumeen lana ekonomikoki, profesionalki eta sozialki aitortua ez izatea eta haien bizilagunak, gizonetzkoak, hain eboluzionatuak eta irekiak ez izatea (Emakunde, 2012:21).

Horrek guztiak esan nahi du belaunaldien arteko erreleboa gero eta gehiago datorrela nekazaritza-tradizioz ez duten familietako kideetatik, hiriko jendea, kanpokoak. Eta emakume berriek, berriz, erronka bikoitza dute: gizonetzkoen sektore batean eta herri berri batean sartzea. Herrian 5 urte daramatzan nekazari gazte baten hitzetan, bera tentsio hori eusten saiatzen dela uler daiteke.

Udaletxean, beti zuzentzen dira nire kidearengana (gizonetzkoak). Bilera guztietan, ni nintzen emakume bakarra. Tentsio handiko uneak zeuden. Baina azkenean prozesua zaintzen saiatu naiz, herri honen parte garelako. Gu hala errespetatzea eta gure seme-alabek herrian jendea gutaz gainziki hitz egiten ez entzun behar izatea garrantzitsua da.

Lehen sektorean emakumeentzako tentsioak eta zailtasunak egon arren, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-ustiategiak gutxitu egin dira azken hamarkadetan, eta, oro har, emakumeen kopurua gizonak baino askoz egonkorragoa izan da. 1989an, emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza ustiategien titular guztien % 19,4 ordezkatzeko zuten, eta 2016an zenbaki hori % 38,2ra igo zen. Sektoreak 1989tik 2016ra bitartean ustiategiatako gizonetzko titularren erdiak baino gehiago galdu dituen artean, emakumeen presentzia nahiko egonkorra izan da aldi berean, arinki gora eginez.


Belaunaldien arteko txandari dagokionez, emakumeen ikuspegiak ulertzea eta emakume berriei laguntzea funtsezkoa izango da, elikagaien ekoizpenaren etorkizunari segurtasuna emateko. Horretarako, adibide bat Etxaldeko Emakumeak taldearen lana da, nekazarien mugimendua ideia feministekin kutsatzen saiatzen dena, eta alderantziz. Taldearen hitzetan, «Gure identitatearen muinean emakume baserritarrak gaude, eta identitate bikoitz horretatik, emakume eta baserritar garen aldetik, elikadura-burujabetzaren eraikuntzan gure ekarpena egin nahi dugu ikuspegi feministatik. Horren ildotan, elikadura-burujabetzaren alde borrokatzen diren agroekofeminista gisa definitzen dugu gure burua» (Etxaldeko Emakumeak, 2018: 3). Beraien jardueraren ildokoak jasotzen dituzte:

1. Diskurtso propio feminista eta baserritarra bultzatzea, Etxalderi nahiz gizarteko beste sektore batzuei harreman bidezko eta parekideagoak sortzeko gakoak emateko.
2. Emakume baserritarrentzat laguntza-tresna praktiko eta politikoa izatea.
3. Emakume baserritarren eskubide eta interesak defendatzea.
4. Diskurtso propio feminista eta baserritarra bultzatzea (Etxaldeko Emakumeak, 2018: 16).

Nekazaritzako tradizioz gabeko gero eta jende gehiago sartzen dabilenez sektorean, prestakuntza eta laguntza funtsezkoak bihurtzen dira. EUSTATen datuen arabera, nekazaritza-ustiategiatako buruzagi gehienak nekazaritzako esperientzia hutsarekin ikasi dute (% 98,4 1989an eta % 85,4 2016an). Hala eta guztiz ere, nabari da gora egin duela, ikastaroren bat, unibertsitate ikasketak edo lanbide-ikasketak edo beste nekazaritza-prestakuntza bat egin dutenen kopuruak (% 1,6 1989an eta % 14,6 2016an)⁴. Eskaera hori ikusita, ez da harritzekoa EHNE Bizkaiak, elikadura-burujabetzaren protagonista nagusia Euskal Herrian, agroekologiari eta beste gai batzuei buruzko ikastaroen eskaintza lehenestea, lehen sektorera salto egitea pentsatzen ari direnak babesteko. 2018an, sindikatuak 31 ikastaro eta tailer eskaini ditu 400 parte-hartzaile baino gehiagori (EHNE Bizkaia, 2018 komunikazio pertsonala). Testuinguru horretan uler daiteke formazioaren aldeko apustua funtsezkoa dela lehen sektorea sendotzeko, hiriaren eta landa-eremuaren arteko lotura izan dadin, tokiko elikaduran oinarrituta.

³ Adibidez, honakoa kontsultatu: <http://www.ikusle.com/un-centenar-de-municipios-vascos-se-encuentran-en-grave-peligro-de-extincion-por-la-despoblacion/>

⁴ EUSTAT Datu-Bankutik ateratako datuak, seriea: eskualdea eta ustiategi kopurua, Euskal AEn ustiapeneko buruak egindako ikasketengatik. 2018ko azaroaren lehen ikusia.



Irudia - Euskal AEn nekazaritzako ustiategien titularrak.

Iturriak - EUSTAT. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Errolda. EIN: Nekazaritza Errolda.

Egilea - Zoe W. Brent.

Land and farming

«The social and ecological benefits of having more, rather than fewer, people working in food - particularly as producers on land and sea - are profound» (Steel, 2012: 42)

Steelek azpimarratu du oso garrantzitsua dela lurren banaketa ekoizleen esku uztea, hau da, nekazari gehiago, eskala txikian. Euskal Autonomia Erkidegoan alderantzizko joera bizi da; lurra lantzen duten pertsonen kopurua behera doa, eta gizonezkoen sektore zaharkitu batekin egiten dugu topo. 35 urtetik beherako Euskal AEko nekazaritza-ustiategien titularrak % 8,5 baino ez dira. Hurrengo belaunaldi eta instalazio berrientzat errolda nagusia lurrera iristea da. Gai konplexua den arren, bi faktore aipatu behar dira lurra eskuratzeko aukera zailtzen dutenak.

Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren eraginak: laguntza-sistema hau Europako aurrekontuaren % 40 da, eta 2016an, 22.977.055,71 euro banatu zituen, EAEn, oinarriko ordainketaren laguntzen 8.720 onuraduni (Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa, 2016:16). Banaketa guztiz desorekatua izan arren, ekoizpen txikietara iristen dena funtsezkoa da horiek bizirik irauteko. Ekologikoan ari den elkarriketaturako abeltzain batek dioen bezala, «Kobratu egiten dugu ez sistema horretan geratzeko, beste nekazaritza mota bati eusteko baizik». Aldi berean, hektareekin lotuta daudenez, laguntzek lurra ez askatzeko pizgarriak sortzen dituzte, NPBren diru-sarrerak ez galtzeko.

Alokairu-kontratuen informaltasuna: NPBk sortutako interesen dinamikak zorrozituz, nekazaritza-lurren erabileraren eta kontrolaren inguruko hitzezko eta herritarren arteko konfiantzan oinarritutako akordioen tradizioa dago. Alde batetik, oso zehaztuta dagoen nekazaritza-testuinguru bat islatzen du, nork zer egiten duen ezagutzen da eta bizilagunen arteko harremana dago; Steelek, aspektu hori giltzarri gisa proposatzen

du bere Sitopiaren ikuspegian. Baina, beste alde batetik, nekazaritza-sektorea zahartzearekin eta jende berria lurra eskuratzeko ahaleginean dabilen artean, konfiantza-sistema hori prekaritate-sistema bihurtu da. Jabe nagusiak aldatzen doazen heinean, eta familia-lurra kudeatzeko erabakiak dagoeneko lehen sektorekoak ez diren pertsonen lekualdatzen badizkiete, jabeek eta maizterrek lurraren funtzioa ikusteko duten modua urruntzen doa. Aldi berean, maizterrak aldatzen doazen heinean, aurpegiak eta abizenak jadanik ez dira betikoak, konfiantza joaten da, eta oso zaila da jendea hitz-akordioetan sartzea pertsona ezezagunekin: «Gazte batek ukiulu bat egiteko laguntza jaso dezake, baina ez dago inolako segurtasunik lurra lortuko duenik. Akordio guztiak hitzezkoak dira. Bihar lur horren jabeek esaten badute ez dutela pertsona horrek erabiltzerik nahi, ez duzu konponbiderik. Nork planteatzen du inbertsio bat egitea lurra izateko segurtasunik gabe?».

Testuinguru horretan oso garrantzitsua da erakundearen rola. Artifizializazioaren eta hirigintza-garapenearen aurrean, lurraldearen antolamenduak asko baldintzatzen du lurra nola erabil daitekeen. Sektoreak prozesu horietan parte hartzea, lurraren erabilera planifikatzerakoan, bere beharrak kontuan hartzen direla bermatzeko modu bat da. Abandonua edo irregulartasunak daudenean udalek esku hartzeak ez du dena ebatzen, baina urrats garrantzitsua da NPBk toki-mailan sortutako interesen aurrean. Udalek ere bermea eta konfiantza eman dezakete ezezagunen arteko errentamendu-akordioetan. Adibidez, lur-bankuek edo herri-lurren lagapenak lurra eskuratzeko erraztu dezakete, bereziki herrikoa ez den jendeari. Bizkaian kokatutako udal-mailako Lur Funtsen programa baten onuradun baten hitzetan: «Nahiago dut Administrazioak jabearekin hitz egitea. Izan ere, nire kasuan, zuzenean joaten banaiz jabeekin hitz egitera, segurutzat jotzen dut ez didatela alokatuko. Kanpotik datorren norbaitentzat zailagoa izango da beti».

Erakundeek zeregin garrantzitsua duten arren, paper garrantzitsua jokatzeko duten faktore kulturalak eta pertsonen artekoak ere badaude. Orduan, instalazio berrietarako lurra eskuratzea zer mekanismok susta dezaketen hausnarketaren inguruan, Arabako teknikari batek planteatzen duena bezalako galdera zailak sortzen dira: «Herrietan prest gauden jende berria hartzeko? Gauza asko hitz egin behar dira. Nik uste dut ez gaudela prestatuta». Beste hitz batzuetan, Euskal Herrian nekazaritza- eta abeltzaintza-belaunaldi berriari entzuteak ahots berriak entzutea esan nahi du, ez baitira nekazari-familien seme-alabak. Eta horrek ondorio sakonak ditu belaunaldien arteko txandaren erronkari irtenbideak bilatzeko orduan.

Work and leisure

Lanaren eta aisiaren arteko harremana oso adierazgarria suertatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorean belaunaldi berriaren ikuspegira hurbiltzean. Lehenik eta behin, bizi-kalitatea eta zaintzak gero eta gehiago lehenesten dira. Eta bigarrenik, garrantzitsua da ulertzea nola baldintzatzen duten kultura-, azpiegitura- eta zerbitzu-gaiek jendeak non lan egin eta atsedean hartu nahi duen hautatzeko orduan.

Lehenik eta behin, denbora eta dedikazio asko behar duen sektore bateko bizitza-kalitateari dagokionez, desberdintasun bat hauteman daiteke aukera gutxiagorekin jaio direnen eta beste bizi-estilo baterako gogoak adierazten dituen belaunaldi gazteagoaren artean. Lehenagoko belaunaldiko abeltzain baten ikuspegitik, gazteek «ez ikasi ez lan egin nahi izan ez duen belaunaldi bat osatzen dute. Orokorrean, gure belaunaldiak ez du behar izan dena transferitu, baina beste aldeak ere ez du erantzukizunik hartu. Gose apur bat egon beharko luke. Gogoa izan behar da.».

Belaunaldien arteko tentsio horretan, lanaren eta zaintzaren arteko tentsioa ikus daiteke. Elikadura-burujabetzak lehenetsuna ematen dio autonomiari, baina hori ere erantzukizun handia da. Nekazari baten hitzetan: «Gogorra da autonomia izatea. Arazo guztiak konpondu behar dituzu. Baina niri gustatzen zait, ez nuke aldatuko».

Denboraren ia % 100eko arreta behar duen lanbide bat izatea, ez da oso bideragarria zaintza-lanak ikusarazten baditugu. Erronka horien aurrean, Euskadiko lehen sektoretik ateratzen diren kooperatiba-ereduek autonomia mantentzeko modu bat eskaintzen dute, baita erantzukizunak partekatzea, oporrak izatea eta nekazaritza-lana etxeko zainketekin uztartzea.

Amatasunaren kontura aldatu behar dugula erabaki dugu, eta lan normala bezala egitea. Izan ere, gazteek ez du tenahi horrela, eta ezin duzu. Zaindu egin behar duzu zeure burua, eta haurrak. [...] Hasieran oso errudun sentitzen nintzen, baina beno, zaintzeak duen garrantzia ulertu dugu. Hasieran, batzuei kosta egin zaie ulertzea, eta beste batzuek ez dute inoiz ulertuko. Lanaldi murriztua ezarri dugu. Eta orain denei zabaldu diegu. Nik uste dut alde positiboa ateratu dugula.

Bigarrena, nekazaritza-ustategien barne-antolaketa haratago, baserriarren belaunaldi berrirako lanaren eta aisiaren arteko harremana baldintzatzen duten zenbait faktore daude. Nekazaritza-familietatik ez datorren jendea

sartzen denez, etxebizitzak eta baratzeak edo ukuluak ez dute zertan leku berean egon. Hau da, lanaren eta aisiaren arteko harremana fisikoki urruntzen da gazte askorentzat. Lurrak lagatzeko edo abeltzaintzako azpiegituren traspasorako akordioetan pentsatzeko orduan, erretiroa hartu nahi duen jendearen eta instalatu nahi duen jendearen artean, ez da lehenagoko formatua errepikatzen, belaunaldi ezberdinetako familia-etxebizitza, animaliak eta ortua ondoan dituen. Euskal Herriaren egungo testuinguruan belaunaldien arteko erreleboa egon dadin, kasu askotan, langunetik bereizitako etxebizitza-formatu bat behar da.

Orduan, euskal nekazaritzaren etorkizunari begira ta erakundearen rola ikusita, mugikortasunarekiko mendekotasun handiagoa egongo dela hautematen da. Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionez, landa-eremu askok ez dute mugitzeko edo nekazari-bizitza moderno horretarako beharrezko zerbitzuak eskuratzeko erraztasunik ematen. Nekazaritza-politika deitzen ez bada ere, garraio publikoa, errepideak mantentzea, zerbitzuetara eta merkatuetara iristea funtsezkoak dira lehen sektorean belaunaldien erreleboa izan dadin.

Eta, azkenik, lehen sektoreko jendeak, beste edozein pertsonak bezala, aisialdia pasatzeko kultura- eta gizarte-aukerak nahi ditu. Landa-giroko despopulazio-testuinguruan, herrietako nekazaritza-kultura berreskuratzen saiatzen diren proiektuek balio handia dute belaunaldien erreleboa ziurtatzerakoan. Azokek, animalien lehiaketek, arteek eta eskulangintzak ere baldintzatzen dute gazteek non bizi nahi duten, eta nola egituratzen den lanaren eta aisiaren arteko harremana lehen sektorean. Belaunaldi horrek aurre egin behar dio, alde batetik, oreka aurkitzeko erronkari, non garai bateko eredu lanak betetzen zuen aisialdirako denbora, ez zuen atsedenerako behar besteko denbora uzten, eta ez zituen zaintza-lanak ikusarazten; eta, bestetik, lana eta aisia hainbeste bereizteko joera, non aisia hiri eta herriguneetan kokatzen den nagusiki, eta landa-eremuak hutsik geratzen dira.

Ondorioak

«Basic building blocks of society»-ei begira, euskal lurraldean belaunaldien arteko erreleboari dagokionez, erronka asko nabarmentzen dira, baina baita aukerak ere. Belaunaldi hori aurrekoaren aldean desberdina da, beste toki batzuetatik dator, eta beste erronka batzuei egin behar izango die aurre, adibidez, instalatzeko orduan lurra eskuratzeari. Emakumeak, bereziki, posible dela erakusten ari dira, baina erakunde publikoen prestakuntza eta babesa funtsezkoa da. Kulturak ere asko baldintzatzen du, eta ezagunen arteko konfiantza-harremanetarako tradizioak kanpoko jendearen sarrera zailtzen du. Zorionez, kultura, euskal landa-eremua bezala, bizirik dago eta pertsonak bezala alda daiteke. Izan ere, nekazari-lana aldatzen ari da, beste lan-eredu agroekofeministagoak zabalduz, belaunaldi berrien beharrak islatuz eta zainketak ikusaraziz. Horrela bakarrik, sortzen ari garen Sitopiak elikadura-burujabetzan lagundu ahal izango du.

///

Erredakzioan itzulia.

Bibliografía

Conde, R. (2018): «La mitad de los pueblos de España está en riesgo de desaparición», España, *El Mundo*.

EMAKUNDE (2012): *La Evaluación de Impacto en Función del Género en Desarrollo Rural y Agricultura*, Instituto Vasco de la Mujer.

Etxaldeko Emakumeak (2018): «Soberanía alimentaria y feminismo, de la mano», <<http://www.elikaherria.eus/legeen-azterketa-ikuspegi-baserritar-eta-feministatik/>>.

Gaindegia (2016): *Euskal Herriko geografia demografikoa: bilakaera eta joerak* (Gaindegiak Udalbiltzarentzat egindako azterlana).

Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente (2016): *Informe sobre la aplicación Registro de Pago Básico en España*, Gobierno de España, Madrid.

Steel, C. (2008): *Hungry City: How Food Shapes Our Lives*, Random House, Kindle bertsioa [Epub ISBN: 9781446496091].

Steel, C. (2012): «Sitopia - harnessing the power of food», in A. Viljoen eta J.S.C. Wiskerke (ed.), *Sustainable Food Planning: Evolving Theory and Practice*, Wageningen Academic Publishers, The Netherlands, 37-45.